

VII. UDA IKASTAROAK • CURSOS DE VERANO

ASKATASUN SINDIKALA KOLOKAN

Laval, Viking, Ruffert, Lehiaren Euskal Auzitegia

Langileen eskubide kolektiboari erasoak

Adolfo Muñoz «Txiki»

ELAren Idazkari Nagusi Albokoaren
mintzaldia

Donostian, 2008ko ekainaren 26an

Langileen eskubide kolektiboei erasoak

Ugazaberiak eta euskal administrazioek sistematikoki urratzen dituzte grebarako eta negoziazio kolektiborako eskubideak eta askatasun sindikala, sindikalismo erreibindikatiboaren eragina mugatzeko

SARRERA

ELAk azken urteetan egiaztatu duenez, negoziazio kolektiborako eta grebarako eskubideen kontrako erasoak eta, oro har, askatasun sindikalaren aurkakoak, sistematikoki bihurtzen ari dira. Egiaztapen horren larritasunaz jabeturik, bide bakarra du edozein sindikatuk, alegia, gertakarietara jotzea (2. atala), gizarteari ezagutaraztea eta, euren sakontasun osoan ulertzearen, gertakariok uneko inguruabarretan lekutzen saiatzea (1. atala), ondoren, sustatu behar den ekintza sindikalera-ko baliagarriak diren ondorioztapenak egiteko (3. atala).

1. ESKUBIDE KOLEKTIBOEN ZAURTZAPENAK JAZOTZEN ARI DIRENEKO TESTUINGURU EKONOMIKO, POLITIKO ETA IDEOLOGIKOA

1. Lan-zuzenbidearen izaera babeslea krisian dago. Iuslaborismoaren printzipio eztaba daezinen arabera, langileak babes berezia behar du, lan-harremaneko alderdi ahula da eta. Izaera babesle horrek bereizten zuen lan-zuzenbidea zuzenbidearen gainerako atal guztietatik. Gaur egun, ordea, printzipio hori krisian dago, bai jurisprudentzian, bai irizpide horren arabera bideratu beharko liratekeen administrazio-jardunbideetan. Legegintza ere (lan-erreformak), izaera babeslearen ezjakinean, enpresen lehiakortasunaren zerbitzura jartzen da, eta, horrela, ezegonkorrago bihurtzen dira langilearentzat lan-merkaturako sarrera (kontratu mota), ibilbidea (mugikortasun funtzional eta geografikoa eta lan-baldintzen aldaketa nabarmena) eta irteera (langilea kanporatzeko erraztasun guztiak).

2. Politikak bertan behera utzi ditu gizarte-betebeharrak. Korrante politiko nagusiek bat egin dute liberalismo ekonomikoaren printzipioekin. Ildo horretan, goian esan bezala, legegintza kapitalaren zerbitzura jarri ez ezik, administrazioek onartu egiten dute lege-iruzurra: enpresak ez dira ikuskatzen eta, ondorioz, ez zaie zigorrik ezartzen. Lan-administrazioak, berriz, bere inibizioa argudiatzeko dienez, "lan-harremanetan, alderdiek joko heldua garatzen dute, eta alderdion bakoitzak ez dagoen jokaztea", soldata-harremana berdinkideen artekoa bailitzan. Gizarte-betebeharrak utzi izanaren adierazpena da, halaber, administrazioen eta gobernuen aldetik, ugazaberiarekiko liskarrik ez izateko erabaki politiko irmoa. Era horretan, eskueran jartzen dizkiote bai diru publikoa, bai mozkinak eman ditzaizketen titulartasun publikoko jarduerak (pribatizazioak).

3. Politika hori bideragarria izan dadin, sindikalismoa bere-berea den jokalekutik atera beharra dago, onepenerako, kudeaketarako eta parte-hartzerako esparru zehatzak esleituz, horrela sindikalismoaren legitimazio-iturriak jatorrena, hau da, langilearen egoera jasanezina, aldarazteko. Hori lortzerik ez dagoenerako, B plana ere badute: sindikatu menderakaitza, sindikatu aldarrikatzailea, kriminalizatu; edo sistema demokratikoetan baliatzen direnez bestelako joko-arauak ezarri. Diskurtsoak ez dira arazo, eta baimendu egiten dituzte; ekintza sindikalak, edukietara zuzenduriko negoziazioak eta, bereziki, grebak egiten diete benetan enbarazu.

4. Inguruabarren multzoko azken osagaia nazioarteko instituzioak (Munduko Merkataritza Antolakundea, Nazioarteko Diru Funtza eta abar) garatzen ari diren politika neoliberalak dira, Europar Batasunean oihartzun berezia dute eta. Horra hor, bi adibide bakarrik aipatzearren, Europako Justizia

Auzitegiak Rüffert auzian (2008ko apirilean) eta Laval auzian (2007ko abenduan) emandako epaiak, negoziazio kolektiboaren eragina murriztu egiten dutenak. Epai horiek direla bide, ukatu egiten da langile etorkinei- Alemanian diharduten langile poloniarrei, lehenengo kasuan, eta Suediako langile letoniarrenei, bigarrenean- gutxienezko soldataren gaineko hitzarmen kolektiboak aplikatzeko aukera; argudio gisa, hitzarmenak ez direla aplikazio orokorrekoak, eta zerbitzu-prestazio askearen aurkakoak direla diote. Irlandak Lisboako Tratatuari ezezkoa eman baino lehentxeago, EBko Lan Ministroek erabaki lotsagarria hartu dute lan-denboraren iraupenari buruz, behin batean Europa soziala deitu zitzaion horretarantzko bidean atzerapauso larria eraginez.

5. Institutuzio horiek diseinatzen dituzten politikek aurrera egiten dute gobernu nazionalak bere egiten dituztelako. Hauen konkurtsoa behar-beharrezkoa da eginkizun horretan, eta ez da egia politika horiek ekidinezinak direnik.

Inguruabarrak azalduta, langileen eskubide kolektiboen aurka Euskal Herrian egiten diren eraso ugarietako batzuk deskribatuko ditugu, sailkatuz, orain.

2. ESKUBIDE KOLEKTIBOEN AURKAKO ERASOEN SAILKAPENA:

A. Greba-eskubidearen kontrako erasoak

Greba langileen oinarrizko eskubideetako da, eta enpresaburua negoziatzera bultzatzea du xede. Arrakasta lortzeko, jardueraren etenak eraginkorra izan behar du; horrexegatik, legez babesturik dago.

Bada, ugazaba-elkarteak, grebaren eraginpeko enpresaburuak eta botere publikoak (azken horiek bai polizia-indarra, bai lan-agintaritzak erabiliz) berebiziko astinaldiak ematen ari zaizkio azken urteetan eskubide horri. Hona hemen esandakoaren zenbait erakusgarri:

1.Administrazioak ebatzitako Gutxienezko Zerbitzuak:

Gobernuak ebatzi dituen abusuzko Gutxienezko Zerbitzuek enpresaren gaineko presioa urritu eta eraginkortasuna kentzen diote grebari. Horrelako gutxienezko zerbitzuak nozitu dituguneko ia kasu guztiak Administrazio Publikoarekiko berarekiko gatazkak edo berak azpikontratutako zerbitzu publikoekin loturikoak izan dira, bereizkeria-egoeren kontrako aldarrikapenen inguruan ia beti. Gauzak horrela, grebaren eraginkortasuna galarazteak ondoren etor litekeen aldarrikapen-turrusta saihestea dakar. Horixe saihesteko konpromisoa hartuta dago gobernuak eta. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- Dornier (Iruñea). Iruñeko Udalak Dornier enpresaren zerbitzuak kontratatzen ditu eta, halaber, udalak berak erabakitzen ditu Gutxienezko Zerbitzuak, enpresa horretako langileek grebara jotzen dutenean. Egoera salatu arren, lan-agintaritzak ez du esku hartu. ELAk errekurtsioa aurkeztu zuen, eta epailek aintzat hartu zuen eskea, aipatutako gutxienezko zerbitzuak benetan neurritz kanpokoak zirela esanez.
- Justiziako greba (EAE). Gutxienezko Zerbitzuak -abusuzkoak- Lan, Justizia eta Gizarte Segurantzaren sailburuak berak (Joseba Azkarragak) agindu zituen, aldi berean epaile eta alderdi jardunez. Grebaren eraginkortasuna egiaztatu zenean, gutxienezko zerbitzuak areagotzeko bigarren dekretu bat eman zen.
- Garbitzaileen greba (Irun). Eudel-en diskriminazio-egoerak berdintzeko aldarrikapenak Udal Administrazioaren eremuan negoziatzeko aukera ukatzea erabakita zuten EAJk, EAK, PSE-EEk eta PPK. Hala ere, ELAk akordio hori "haustea" lortu zuen hainbat udalerritan. Irunen, Lan Sailak hiru aldiz aldatu zituen gutxienezko zerbitzuak, zikinkeria pilatu ahala. Lan Sailak (EA), beraz, behar diren ebazpenak ematen ditu Eudel-en ituna eraginkorra izan dadin.

- Metrocés egoitza (Gasteiz). Gutxienezko Zerbitzuak hirutan aldatu ziren hor ere.
- Metroa (Bilbo). Zerbitzuen portzentajea nahierara ezarri zen: greba egun batekoa izatera, %20koa, eta ordubetekoa izanez gero, %40koa.

2. Informazio-piketeen kontrako ekintzak

Piketeak ?gatazka ezagutarazteko eta gizarteratzeko tresnak? babes handia du jurisprudentzian, grebarako oinarritzko eskubideari loturik dagoen heinean.

- Ertzaintzaren jarduna: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak idatzi eta guk ikusi ahal izan dugun txosten baten arabera, greba eta piketea "eskubide izan arren, arrisku ere badira herri-tarren elkarbizitzarako, bide eta leku publikoen erabilera baketsurako eta hirugarrenen esku-bide eta askatasunen erabilera aserako, eta ondasun juridiko horien guztien babesa, jakina denez, Segurtasun Indar eta Kidegoen eginkizuna da". Horrelako adierazpenen ondorioz, Ertzaintzak, askotan, gaizkile balira bezala ikusten eta tratatzen ditu grebalariak.
- Carlton hotela (Bilbo). Gezurrez baliatuz kriminalizatzea. Kalez jantziriko bi "lagun" grebako pikete baketsuko kideen artean sartu ziren. Inolako abisurik eta identifikaziorik gabe, kolpeka hasi ziren piketeko langileen kontra. Bi "lagun" horiek ertzainak ziren. ELAko militante liberatu bat atxilotu zuten, agintaritzaren aurkako atentatua egin izana leporatuta.

Saileko arduradunekin egindako bileran, polizia-atestatuan adierazitakoari tinko eusten ziote-larik, ertzainek grebetan nola jardun behar duten zehazteko protokolorik ez dagoela aitortu zuten, ez eta langileen oinarritzko eskubideei eta eskubideok babestu beharri buruzko pres-takuntza-planik ere. Arartekoak ELAren bertsioa aintzat hartu eta kexa bidali zion Sailari. Arartekoaren iritziz, harrigarria da prozesu penala jada hasita zegoela argudiatu-rik ikerketari hasiera eman nahi ez izana, bai eta funtzionarioek berariazko prestakuntzarik ez izatea ere. Arestian argitaratu den epaiak ukatu egiten du "agintaritzaren aurkako atentaturik" egona, ert-zainak ez ziren-eta identifikatu. Hau da, legez aurka jardun zuten.

3. Gatazketan laguntzen duten militante sindikalak kriminalizatzea.

- Hormigoi eta harrobiak (Bizkaia). Ugazabek espetxe-zigorak eskatu ditu ELAko militante bat-zuentzat, sindikatuaren erantzukizun subsidiarioaz gain, enpresei egindako kalteen ordaine-tan, kalte horien barruan enpresek greban zehar irabazi ez zituzten mozkinak ere sartuta.
- Garbitzaileak (Basauri), Gasteizko Udala, Bilboko Portua, Iruñeko Dornier enpresa,... Gatazka horietan guztietan, banaka epaituta larritasunik ez duten ekintzekin zerikusia izan duten mili-tante ezagunak hautatu ditu ugazaberiak, delitu-egozpenerako. Lehen onartzen edo jasaten ziren gauza batzuk jazarri egiten dira gaur egun. Jakin badakigu, gainera, Ministerio Fiskalak zorrotz jarduteko agindua jaso duela, jokabide sindikalei dagokienez.

4. Enpresariak greban zehar legez aurka egindakoan aurrean

Segurtasun-indarren arabera, enpresariak legez aurka egindakoak "legez aurkako lan-egitate soilak" dira, eta eurek ez dute horrelakoetan esku hartu behar. Aitzitik, pikete bat greban dagoen enpresa batera eskirolak daramatzen kamioi bati bidea ixten saiatzen denean, indarra erabiltzen dute, langi-leen eskubide hori hustuz eta grebalariei iseka eginez. Lehenengo kasuan, Ertzaintzak enpresaren askatasuna bermatzen du; bigarrenetan, oinarritzko eskubide bat urratzen laguntzen dio enpresari.

- Eskirolen lana. Legeak "grebaren eraginkortasuna galarazteko xedea duen edozein ekintza" debekatzen du (123/1992 KAE). Zuzenbidearen kontrako esku-sartze maila neurtzeko, doktri-nak "enpresariaren asmoari" deritza erabakigarri. Hala ere, enpresaburuek zehapenik gabe ordeztzen dituzte grebalariak, ikuskaritzak ez du ikuskatzen, eta fiskaltzak ez du esku hartzen

eta ez du jakin nahi Zigor Kodean enpresarien "delitu sozialei" buruzko artikulua daudela. "Legez aurkako lan-egitate" horiek ere ez dira poliziaren ardura.

- Ocariz enpresa (Agurain). Pikete bat fabrikaren sarreran zegoelarik, enpresaz kanpoko eskirolak zeramatzen kamioiak sartu ziren, Ertzaintzaren eskoltaz, langile grebalariak ordeztuko. Ertzaintzak piketearen aurkako salaketa jarri zuen.
- Pferd-Caballito. Ocariz enpresako egoera bera gertatu zen hor, kasu horretan eskirolak enpresa-koak bertakoak baziren ere.
- Maderas Lobera. Enpresa horretako auzia grebalarien alde ebatzi zen. Magistratuak, "oihuak eta pankartak greba-egoeraren adierazpen logikoak direla" esan eta gero, zigorra ezarri zion enpresari, gatazkak iraun zuen artean greba egin ez zuten langileei ordutegiak eta zereginak aldatzeagatik. "Langileak grebalarien hertsapenetatik babesteko" egin zuela argudiatu zuen enpresak.

B. Negoziazio Kolektiboaren aurkako erasoak

- Ordezkaritzaren gehiengoaren kontrako sinaketak. Zenbait sindikaturen laguntzaz, gutxiengoko akordioak sinatzea ohiko bihurtu da. Horrela, ugazaberiaren alderdiak bere ezarpen-politika gauzatzen lagunduko dion sindikatua aukeratzen du, printzipio demokratikoa urratuz. Maltzurkeria muturreraino eramanez, sinatzaileek gehiengoko akordioak lortzeko besteko ordezkariak duten esparru batzuetan ez dute sinatzen, banakako atxikipenak sustatzearen. Jardunbide hori bereziki larria da funtzio publikoan, zilegitasun politikoa printzipio demokratiko horrekiko begirunetik datorkienek eurek sustatzen dutela kontuan hartuta.
- Alde bakarreko dekretuak Administrazio Publikoen eremuan. Administrazio Publikoetan, negoziatzeko "betebeharraren" ordeztu, "mahai baten irekiera formala" ezarri da, ondoren etorriko den Dekretua justifikatzekotan.
- Indarraldiaz haraindiko eraginkortasunaren kontrako erasoak. Hitzarmenak, bere indarraldia amaituta ere, eraginkorra izaten jarraitzen du, beste hitzarmen batek berritzen duen artean. Egin diren azken lan-erreformetako bat hitzarmen kolektiboaren jadanekotasun berezi hori aldatzen saiatu zen, narriatzeko asmoz. Ez dira oraindik horraino iritsi. EAEko gobernua, ordea, aitzindaria izan da indarraldiaz haraindiko eraginkortasuna ukatzen, baldintzak alde bakarreko dekretuen bidez inposatuz, itundutakoaren indarra ezetsiz eta lehenagoko akordio-en balioa ezeztatuz.
- Negoziazio kolektiboa zentralizatzea, beste negoziatio-esparru batzuk irekitzeko aukera eragozteko; ildo horretan, helburu hori duten grebak legez aurkakotzat jotzera ere iritsi dira.

C. Askatasun Sindikalaren aurkako erasoak

- Manifestazio-eskubidearen kontrako zehapenak, "hiriaren funtzionamendu normala" eragozten dutelako argudioak.
 - Urduñan, eguerdiko 12:00etan, oihu egitea debekatu eta protestaren lekutik urrunarazi egin gintuzten.
 - Manifestazioen ibilbide-aldaketak, erdialdeko lekuetatik edo egoitza zehatz batzuetatik (Eusko Legebiltzarretik, esaterako) igarotzea edo bertan amaitzea eragozteko.
- Hauteskundeetara hautagai aurkezteko aukera askea galaraztea. Sindikatu, ordezkari eta hautagai batzuen aurkako ekintzak. Lan Administrazioak eta fiskaltzak ez dituzte gertakari hauek -delitutzat jo beharko zirenak - ez zelatatzen, ez jazartzen.

- Lehiaren Defentsarako Auzitegia. Organo horren jardunak argi erakusten du euskal Administrazio Publikoaren fundamentalismoa, bai merkataritza arloan, bai sindikatuetikiko aurkakotasunari dagokionez.
 - ELA eta beste sindikatu batzuk dendak igande eta jaiegunetan irekitzearen kontra daude. Atsedean hartu beharragatik eta desregulazioa eta prekarietatea saihesteko, besteak beste. Ez dago dendak ez irekitzeko akordiorik, irekitzea saihesteko presio sindikal soila baizik.
 - Hala ere, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua etengabe ari da izapidetzen "Lehiaren Defentsarako Legeak debekatzen dituen ustezko jokabideei buruzko ezkutuko informazioa" sindikatuen kontra, azalera handiak igande eta jaiegunetan irekitzearen aurkako isileko akordioengandik inguruan.
 - Informazio xehatua exijitzen die sindikatuari, sindikatuaren gobernu-organismoak gai horrekin "zuzenean nahiz zeharka loturik egindako bileren akten kopiak" eta guztiz, "jaiegun batean irekitako edozein azalera komertzialen inguruan" egin diren ekintza guztien azalpen zehatza ez ezik. Horretarako, 10 laneguneko epea ematen du. "Erantzun ezean", Lehiaren Defentsarako Auzitegiak isun astunak ezar diezazkieke sindikatuari: eguneko 12.000 euro artekoak, hain zuzen ere.
 - Lehiaren Defentsarako Auzitegia Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Industria sailburuek izendatzen dute, konfiantza irizpide hartuta. Jaurlaritzaren politikak garatzeko organoa da, eta bere jardunaren xedea konpainia handien interesak babestea da.
 - Auzitegiko Lehendakaria, Legebiltzarreko agerraldi batean, "eskubideak xedatzen dituzten legeen aurka goaz" ausartu zen esaten. "Legeak aldatzea exijitzera" joan zen bertara. Kakotx artean sartutakoa, agerraldian esandakoen hitzez hitzeko itzulpena da.

Lehiaren Auzitegiaren jardunari buruzko ohar batzuk :

- Inkisizioaren moduko jarduketak. Auzitegi horren moduko organismoak ahalbidetzen diete gobernuari, anonimatututako politikoan eta "erantzukizun-gabezia" ezkutaturik, euren politikak garatzea eta Inkisizioaren garaiko tankerako ekintzak burutzea, horretarako, nagusitasuna ematen dion tresna, hots, administrazio-prozedura, bidegabeki erabiliz.
- Eskubide sozialen gutxietea. Sindikatu batek egiten duen guztiak du zerikusia lehiarekin (soldatak, lanaldiak, bereizkeriak,...). Eusko Jaurlaritzak eskubide mugagabeak eman nahi dizkie enpresei askatasun sindikalaren kontura, nahiz eta askatasun sindikalari goragoko konstituzio-maila dagokion.
- Politika ultraliberalak garatzeko gobernu nazionalak sorturiko organismoak. Gobernuak -bere eskuduntzen arabera- izendatutako organo horiek tokian tokiko zartailu bihurtzen dira, nazioz gaindiko instituzioek (MMAk eta abarrek) edo Europako Justizia Auzitegiaren modukoak prematutako politikak garatzeko. Gizarte eta lan arloetako arauak eta sindikalismoa bera oztupoa dira haiengandik, eta, horregatik, bazterrean uztea erabaki dute.

3. ONDORIOZTAPENAK:

- Aurretiko ohar batzuk
 - Sindikalismoari bi aukera dauzka testuinguru honetan. Bata, agintearen jardueraren laguntzaile bihurtu, alegia, ekintza sindikalaren eta negoziatutako kolektiboaren ordezkotutako sozialaren antzeko zerbitzu antolatuz. Bestea, ELAk berea egiten duena alegia, langileen mugimenduaren oinarrian bertan erantzun kolektiboa lantzea, sindikalismoak gauzak aldatzeko balio behar duela.

- Erasoen baldarkeriaz baliatu behar gara, elementu didaktiko gisa, gure jendearen eta gizartearen bultzagarri izan daitekelarik. Baina, aldi berean, gogoan izan behar dugu euskal administrazioaren eta bertoko gobernuaren erro demokratiko gero eta ahulagoek, ugazaberiaren jarrerak eta epaile zein fiskal batzuen jardunbideak erronka handi baten aurrean jartzen duela sindikalismo aldarrikatzailea etorkizunean. Etorkizun hori antolatu beharrean gaude.
- Gure jarrera eta konpromisoa
- Euskal administrazioak enpresari-klasearen premiak, balioak eta interesak bere egin dituelarik, areago kontzentratu behar dugu botere politikoan oinarritzko eskubideen aurkako eraso horiei buruzko gure balorazio kritikoa. Eusko Jaurlaritza, konkretuki, bere eskuduntzen esparruan zein gogor aritzen den ikusi dugu. Baina praktikak ere erakusten digu bai gobernuak eta bai ugazabak ez direla menderaezinak, kalteberak ere izan daitezkeela, alegia, antolaturiko ekimen sindikalaren aurrean.
- Zailtasunak zailtasun, inguruabarrak ez dira traba, sindikatuaren eginkizun berezkoena, hau da, sekzio sindikalak antolatzea, eraginkortasun handiagoz gauzatzeari begira. Ezer ez da oztipoa gu gure lana hobeto egiten saia gaitezen. Gure jarduera-esparrua oso zabala da, oinarrian ditugun baliabideak mugiarazteko gai baldin bagara.
- Negoziazio kolektiboa sindikalismoaren esku-hartzerako eta borrokarako eremurik jatorrena da. Aldarrikapen-edukiei lehentasuna ematea, sindikatuen arteko portaera-kodeak zehaztea, greba eta gatazka ez baztertzea, eta negoziazioa baliabidez, lan-metodoz eta antolakuntzaz hornitzea dira ELAren hautabide garrantzitsuenak, negoziazio kolektiboari dagokionez.
- Defentsa juridikoa ere inportantea da, oinarritzko eskubideen aurkako erasoen aurrean. Besteak beste, ahalik eta gehien baliatu behar dugu babes judizial eragingarria, ebazpenak eta epaiak (berediktua edozein dela ere) doktrinan ondo oinarrituta egon daitezen, auziak luzatu ez daitezen eta gutarren defentsaren bermea lortzeko lan eginez.
- Sindikatuaren finantzazko autonomia ezinbesteko bilakatu da, gure eredu sindikal aldarrikatzailea baliarazteari begira. Are autonomia handiagoa erdietsi behar dugu oraindino.
- Gaur egun agerikoak diren zailtasunak gorabehera, indar sindikalen batuketa, aliantzak, funtsezko erreferentzia estrategikoa dira. Ditugun arazoak gutxietsi gabe, ez dugu ahaztu behar sindikalismo erreibindikatzailerak indarrak metatzeko erronka duenik.

Egun hauetan garatzen ari den jardunaldiak, prentsaurreko honen testuingurua ere badenak, lantze-ko ditugun arazoen ikuspegi orokor egokia ematen digu, eta arazook berriro borroka internazionalistara jotzera presatzen gaituzte. Lankidetzarako guneak aurkituko ditugu, horixe da-eta gure apustua. Gureak bezain inguruabar latzetan diharduten beste sindikatu batzuk nola antolatzen ari diren jakitea modu ona da, bide horretan aurrera egiteko.